

Denboraren makina


N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Harreman arriskutsuak

MADRIL, 1979KO URTARRILAREN 11. Arriskugarritasun Sozialaren Legea indargabetu zuten Espainian. Lege hura 1970ean onartu zuten; haren testuan irakur zitekeen, besteak beste, homosexualak eta transexualek “delituekintzak nahiz ekintza antisozialak burutzeko joera” zutela. Joera horren aurrean, ez zen beharrezkoa pertsona “arriskutsu” horiek deliturik egitea atxilotuak eta espetxeratuak izateko. Alderantziz, kome-nigarria zen haiek gizartetik baztertzea kalte larriak eragin baino lehen.

Baina homosexualen aurkako jazarpen frankista ez zen 1970ean hasi. Hori bai, lehen garaietan frankismoa lanpetua zebilen disidentzia politikoa deuseztatzen, eta gai sozialetan 1933ko abuztuaren 4ko *Ley de vagos y maleantes* delako lege errepublikarrarekin jarraitzea erabaki zuten. “Gaizkileak eta proxenetak, eskale profesionalak eta haurrak, gaixoak eta elbarriak eskale gisa esplotatzen dituztenak” zituen jomuga lege hark. Baina 1954an legea aldatu eta zerrenda horri homosexualak erantsi zizkieten. Homosexualak zentro espezializatuetan sartu behar zirela zioen legeak, bertan “errehabilitatuak” izan zitezen. Baina aurrekontuek sekula ez zuten horrelakorik aurreikusi eta, besterik gabe, joera sexual “desbideratua” zutenak espetxe arruntetan sartu zituzten.

1970ean lege hura derogatu zuten ofizialki. Praktikan, izena baino ez zioten aldatu. Kolektibo berberak jazarri



Goian, Francoren garaiko espetxea; Arriskugarritasun Legeak 1.000 homosexual inguru bidali zituen espetxera. Behean, 1977ko eranskailua, Baztertuen Astea iragartzen duena; “amnistia osoa bai, ley de peligrosidad social ez” dio pegatinak.

zituen lege berriak eta, homosexualen kasuan, bost urtera arteko kartzela zigorrak ezarri zizkieten. Auzitegi Gorenaren Fiskaltzaren memorien arabera, Arriskugarritasun Legearen ondorioz 58.000 atxiloteta eta 21.000 kondena izan ziren. 4.000 atxilotu homosexualak izan ziren, ia guztiak gizon-nezkoak, eta 1.000 baino gehiago espetxeratu zituzten 1970etik 1979ra; 1970 baino lehenagoko daturik ez dago.

“Arriskutsu sozialek” ez zuten indultua, baldintzapeko askatasuna edo zigor murrizketa lortzeko aukerarik. Trantsizioan ere azkenak izan ziren espetxea uzten; preso politikoak ez zirenez, amnistiak ez zituen askatu. Ezkerreko hainbat alderdik, intelektualek eta zenbait kolektibo profesionalek batu behar izan zuten, UCDri presioa egin eta, duela 30 urte, Arriskugarritasun Legea bertan behera gera zedin.

Espainiako gobernuak neurriak hartu dituela esan arren, garai hartan atxilotutako eta espetxeratutako homosexualen polizia-fitxak komisiarietan daude oraindik. Antonio Ruizek, esaterako, bost urteko borroka behar izan du beraren espedientea txikitu ahal izateko, polizia batek NAN eskatu eta bere lankide bati “kontuz, hau marikoia duk” esan ondoren. Lege horren gainerako biktimek, ordea, ez dituzte beren fitxak desagerrarazi nahi; Espainiako Artxibo Historikoan gorde nahi dituzte, guztien memorian, alegia.

Arrastoak

IV. mendeko biblia, sarean

CODEX SINAITICUS-aren lehen pergaminoak, hau da, IV. mendeko biblia-aren hainbat zati, Interneten kontsulta daitezke dagoeneko, www.codex-sinaiticus.net helbidean hain zuzen. Lan baliotsu horren edizio digitala Liburutegi Britainiarra egiten ari da, Leipzig eta San Petersburgoko unibertsitateekin elkarlanean. Lehenik Leipzigen gorde diren 43 orrialdeak argitaratu dituzte. Ondoren Itun Zaharreko zenbait orri ipiniko dituzte, Sinai mendiko Santa Katalina monasterioan (Egipto) eta Errusiako Liburutegi Nazionalean gordeta daudenak. Urte amaieran orotara 390 pergamino hartuko ditu webguneak.

Proiektuak ez du testuen erreproduzio hutsa egiten, grekozko testua transkribatu eta alemanezko itzulpena ere eskaintzen du. Gainera, paragrafoak nahi bezala mugi daitezke.



Codex Sinaiticus
IV. mendeko eskuizkribuaren xehetasuna. Biblia honen zati bat dagoeneko Interneten kontsultagai dago. Eta urte honen amaieran eduki osoa izango da.